

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Hasierako onespenerako izapidetu daitekeen proiektua idazteko fasea

Duela gutxi onetsi da 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 3. artikuluan, herritarrek parte hartzeko plana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikokoan argitaratzeko betebeharra ezartzen da, administrazio publiko sustatzailearen arabera.

Erriberabeitiako HAPOak herritarrek parte hartzeko plan bat du, Hirigintza Batzordean aztertu, udalbatzara eraman eta udalaren webgunean argitaratu zena.

Gaur egun, HAPOaren izapidetzea proiektua idazteko fasean dago, eta hasierako onespena emateko izapidetu daiteke. Fase horretan, herritarren partaidetzarako zenbait ekintza aurreikusita daude. 46/2020 Dekretuan HAPOa izapidetzeko falta denerako adierazitakoa betetzeko, planaren izapidetzea amaitu arte aurreikusitako herritarren partaidetzarako programa argitaratzen da jarraian.

Orain arte egindako parte-hartze prozesuan kontuan hartu beharreko gaiak

Parte hartze Plana Hasierako Onespen Fasean dago; Aurrerapenaren Memoriako "G" atalean aurrerapenaren dokumentua jendaurrean jarri arte jarraitutako parte hartze prozesua jasotzen da.

Aurrerapenaren jendaurreko erakustaldian, herritarrentzat aurreikusitako aurkezpen orokorraz gain, ondoren, uztailaren 22an, 23an eta 29an, kontzeju bakoitzean bakoitzari buruzko gaiak aurkeztu ziren. Saio horiei esker, gune guztietako biztanleei planteatutako gaiak argitu eta erraztu ziren, eta parte hartze zabala izan zuten. Hori dela eta, hasieran onetsitako plana jendaurrean jarri bitartean eskema bera errepikatzea proposatzen da.

2020ko otsailean, Irismeneko Dokumentua (ID) jaso da, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteko prozesuarekin jarrai daiteke.

Hasiera batean aurreikusitako plana atzeratu egin behar izan zen COVID-19k sortutako pandemiaren ondorioz.

Jarraian, HAPOa behin betiko onetsi arte aurreikusitako lan programa azaltzen da; adierazitako datak eta saioak partaidetza prozesuak berak eskatzen duenaren arabera egokituko dira; nolahi ere, egiten den saio bakoitza iragarri egingo da, eguna, ordua, lekua eta edukia alde aurretik adierazita, iragarki taulen, udalaren webgunearen eta emaileen bidez, lan talde parte hartzaileko kideei.

Lanaren programa eta kronograma

DATA	BILERA ETA HELBURUA
Hasierako onespenerako plana egiteko fasea	Nahiz eta herritarren parte hartzeak interes berezia duen planaren estrategia ezartzen den Aurrerapenaren fasean, esperientziak erakusten du planaren idazketan ere herritarren oharrak eta iradokizunak izatea komeni dela.
2020ko uztailaren 17a 18:00	Herritarrentzat irekitako saioa, iradokizunen eta irismen dokumentuaren emaitzak azaltzeko. Halaber, HAPOaren oinarritzko proiektuaren lehen zirriborro bat azalduko da, herritarren ekarpenak jasotzeko aukera emanez, dagoeneko ezarrita dauden bitartekoen bidez.

DATA	BILERA ETA HELBURUA
2020 abuztua-iraila	Bilera Hirigintza Batzordearekin, HAPOaren oinarriko proiektua azaltzeko. Proiektu horretan, modu eskematiko eta argian, HAPOaren hirigintza-araudian artikulua bidez garatu beharko diren zehaztapenak jasoko dira. Dokumentazio horrek, planaren planoen zirriborroekin batera, oharrak eta ekarpenak jasotzeko oinarri nahikoa emango du.
2020 abuztua-iraila	Saioa ABekin, HAPOaren oinarriko proiektu hori bera azaltzeko.
2020 abuztua-iraila	Partaidetza Lantaldearekin eta herritarrekin bilera, HAPOren oinarriko proiektu hori bera azaltzeko.
2020ko iraila-urria	Aurreko bileren arabera azterketa sakonagoa eskatzen duten gai eta auzi espezifikoekin bilerak edo lan saioak prestatuko dira.
2020ko urria	Aurreko bileretan aztertutako gaiak eta HAPOaren proiektu aurreratua Hirigintza Batzordearekin aztertzea.
2020ko urria	Aldez aurreko bilerak ikusita, idazketa taldeak HAPOa egingo du, hasierako onespina emateko.
Hasieran onartutako HAPOa jendaurrean jartzeko fasean.	HAPOaren edukiaren aurkezpen orokorra, alegazioak errazago egiteko. Kontzeju bakoitzean HAPOaren edukia aurkeztea, alegazioak errazago egiteko. Idazketa taldea herritarrentzat eskuragarri egongo da fase honetan guztian, zalantzak argitzeko eta alegazioak idaztea errazteko.
Alegazioak aztertu eta ebatzea	Jasotako alegazioen lehen azterketa. Alegazioen txostenaren zirriborroan sartutako proposamenak ezestea proposatzen badu, edo alegazioaren zentzua argitu behar dela uste badu, Hirigintza Batzordeari kontsulta egingo zaio interesdunarekin bilera bat egiteko aukerari buruz. Hirigintza Batzordeari eta/edo osoko bilkurari alegazioak eta txostenak ebatzeko proposamenak aurkeztea, planaren aldaketak adierazita. Gainera, baten bat funtsezkoa bada eta 2/2006 Legearen 90.6 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hasierako onspen eta azalpen berri bat adostu behar dela jakinaraziko da.
Hasierako onspenera arteko izapidetzea	Behar diren bilerak egingo dira hirigintza batzordearekin, partaidetza lantaldearekin, herritarrekin edo partikularrekin, izapidetze prozesuaren inguruabar zehatzen arabera.

Ribabellosa, 2020ko ekainaren 29a

Alkatea

MIREN SANTAMARIA MARTINEZ